

«Pozik» dago  
Tolosa CF  
hasierarekin

Bi berdinketa lortu  
dituzte Etxeberriaren mutilek ▶ 2



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Asteartea ▶ 2006-09-05 ▶ IV. urtea ▶ 954. zenbakia ▶ [www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

PATXI ZEBERIO ▶ ERREMONTISTA

## «Asko kostatako txapela izan da, lan handia egin baitut urte osoan»

**ELDUAIN** ▶ Ametsa bete du elduaindarrak Buruz Buruko txapela estrainekoz jantzita

**BALORAZIOA** ▶ «Partida gogorra» izan zela dio; «fisikoki gogor egoteak lagundu ninduen» ▶ 6



Patxi Zeberio, Buruz Buruko Casino Kursaal Txapelketako txapela eta garaikurrarekin. M. SOROA

VILLABONA ▶


## Aizkardi elkarteak irteera antolatu du Pirinioetara

Gavarnie eta Ordesa ingurura joango dira, hilaren 23an eta 24ean ▶ 4

LEITZA ▶

## Gasoil isuriketa izan da Erasote errekan

Amuarrain haztegitik behera agertu ziren orbanak eta usaina ere nabaria zen ▶ 7



Erasote errekan gasoila. J. A.

TOLOSA ▶

## Hil honen 16an aurkeztuko dute himnoa jendaurrean

Tolosako Orfeoia «gustura» dago herritarren parte-hartzearekin ▶ 2

LARRAUL ▶

## Begirale ikastaroetan izen emateko epea zabaldu du Hezkidek

100 edota 200 orduko ikastaroen bidez eskuratu ahalko da titulua ▶ 5

**ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

"Zure helburua lan egitea bada..."

|  |   |
|--|---|
| <b>DEIALARTEA ETA TURISMOA</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zuzenbetea</li> <li>• Elkarretarako</li> <li>• Zuzenbete eta diruak</li> <li>• Zuzenbete eta zuzenbete erabilerak</li> <li>• Zuzenbete erabilerak, I. maila</li> <li>• Zuzenbete erabilerak</li> <li>• Zuzenbete erabilerak eta zuzenbeteak</li> </ul> | <b>INFORMATIKA</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Informatika oinarriak</li> <li>• Informatika aplikazioak</li> <li>• Informatika aplikazioak</li> <li>• Informatika aplikazioak</li> </ul> |
| <b>ABERRIKUTIA ETA ABERTASUNA</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Abertarritasunaren oinarriak</li> <li>• Abertarritasunaren oinarriak</li> <li>• Abertarritasunaren oinarriak</li> </ul>   | <b>ABERTARITASUNA</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Abertarritasunaren oinarriak</li> <li>• Abertarritasunaren oinarriak</li> <li>• Abertarritasunaren oinarriak</li> </ul>                |

**BENETAKO PROFESIONALA IZANGO ZARA**

**MATRIKULA ZAITEZ!**

953 316 900

**Cebanc-Clea**

ERREMONTISTA, ENFERMERA, ENFERMERA, ENFERMERA

Bario Pasaletxea, 56 - 20.016 Donostia

## FUTBOLA ▶

# Berdinketa erdietsi du Tolosa CF-k Eibar B taldearen aurka

Denboraldiko bigarren partida berdindu ondoren, bi puntu batu dituzte tolosarrek; gustura daude lortutako emaitzekin

IÑIGO TERRADILLOS

Eibar B taldearen aurka jokatu zuen larunbatean aurtengo denboraldiko bigarren partida Tolosa CF-k, eta 0-0eko berdinketarekin, puntu batekin, beraz, bueltatu ziren etxera.

Atean, Santamaria, defentsan, Lacalle, Iban, Ekhi eta Jon, zelai erdian, Romero, Elola eta Orue eta aurrean, Regillaga, Rincon eta Gibelalde zirela atera ziren Eibarko zelaira tolosarrek. Balerdik, Martinezek eta Blancok ere jokatu zuten horiez gain, Rincon, Elola eta Gibelalde ordezkatu baitzituzten, hurrenez hurren.

Gorka Etxeberria talde tolosararen entrenatzailea gustura azaldu da Eibar B taldearen aurka lortutako emaitzarekin; «Eibarren oso talde ona espero genuen, eta puntu batekin itzultzea poztekoa izan da». Lehenengo zatia bereziki txarra izan zen urdinentzat, eta ondorioz, aurkariak aukera ugari izan zituzten baloia sarean sartzeko. Dena den, hutseko ber-



Gorka Etxeberria da aurtengo Tolosa CF-ko entrenatzailea. I. E.

dinketarekin joan ziren atsedenaldira.

Bigarren zatian, tolosarrek jokoaren berantolaketa bat egin zuten, eta maila hobea eskaini zuten. Aurkariak ez zituzten lehenengo zatian izan zituzten aukerak izan porteriaren aurrean Tolosako jokalariek aginte handiagoa eta kokapen egokiagoa eraku-

tsi baitzuten. Partida golik gabe amaitu zen, eta Tolosa CF-k bigarren puntua batu ahal izan zuen, ligako lehen partidan ere berdinketa lortu baitzuten. Entrenatzailearen esanetan, «gustura gaude lortutako emaitzarekin, baina Eibar B gu baino gehiago izan zen».

Saillkapenari dagokionez, tolosarren moduan beste zazpi talde daude bi punturekin, beraz, 9 eta 15 postuen artean leudeke. Ez da, ordea, saillkapena Etxeberriak gehien arduratzen duena: «talde umila gara, eta badakigu gure aurkariak oso gogorrik izango direla, horregatik maila mantentzea eta bertan indartzea izango da gure helburua».

Hirugarren partida hurrengo asteburuan jokatuko dute tolosarrek —asteburu honetan ez da ligako partidarik izango— etxean, Baskonia taldearen aurka.

## KULTURA ▶



Pasa den ostiralean egindako entseguko une bat. HITZA

## Herritarren harrera ona himnoaren entseguetan

Orfeoia gustura azaldu da erantzunarekin; herritarrek animatu dituzte parte hartzera

I. TERRADILLOS

Datorren larunbatean, hilaren 16an, herriaren sorreraren 750. urteurrena dela eta, Tolosako Orfeoia *Tolosa Kantuan* kontzertua eskainiko du Ignacio Ruiz de Alegriaren zuzendaritzapean, Euskal Herria plazan, 22:30ean.

Kontzertua Enrique Ugartek Koru Handirako eta Orkestrarako harmonizatutako euskal kantu herrikoiak bildumak osatuko du. Horretaz gain, Tolosako Orfeoia 750. urteurrenerako eskatutako himnoa aurkeztuko dute, Ainhoa Artetaren partaidetzarekin. Himnoa Enrique Ugartek konposaturikoa da, eta letrak, berriz, Karlos Linazasororenak dira. Euskal inspirazioko doinuaz konposatua dago, baina baita inspirazio sinfonikoaz eta herrikoiak ere. Gure herriko tradizio adierazgarria biltzen du himnoak egilean arabera, eta «bere interpretaziorako parte-hartze herrikoa ezinbestekoa da». Hori dela eta, Tolosako Orfeoia aho-entseguak behar ditu 750. urteurre-

neko himnoa datorren larunbateko kontzertu berezian kantatzeko.

### Herritarren erantzuna, ona

Hala, Tolosa eta eskualdeko biztanleak, ikastetxeak, musika taldeak, erakunde sozio-kulturalak eta gastronomikoak... gonbidatu nahi dituzte Orfeoiarekin batera abestera.

Herritar ugari dira, dagoeneko, deialdiari jarraituz kontzertuan parte hartzera animatu direnak. Hain zuzen ere, pasa den ostiralean egin zuten lehendabiziko entsegua Beotibar pilotalekuan. Orfeoia gustura daude, «erantzun oso ona» izan baitzuten; 300 lagun bildu ziren, eta jende gehiago ere izango dira oraindik, gehiago baitira zerrerdetan daudenak. Bigarren entsegua ostiralean izango da, 20:30ean, leku berean.

Orfeoia gogorarazi nahi die herritar guztiei oraindik aukera dutela izen emateko, eta horretarako 625 70 36 84 zenbakira hots egin beharko dutela.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## hilberria ▶

### Izaskun Laka Egaña

Ez nau izutzen negu hurbilak  
uda betezko beroan  
dakidalako irauten duela  
orainak ere geroan.

Xabiren lankideak  
EMUN Koop. E.



ARRASATE, 2006ko irailaren 5a

## hilberria ▶

### Izaskun Laka Egaña

Ken Zazpi, Su Ta Gar  
gustuko musika  
euskararekin berriz  
nekeak hamaika  
urteak ein dituzu  
AEK-kin KORRIKA  
heriotzari aldiz  
ezin ihesika.

Goiztiri AEK-ko lankideak

ATAUN, 2006ko irailaren 5a

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

**KIROLA ▶**
**Pirinioetara mendi irteera, asteburu honetan**

Alpino Uzturre mendi elkar-teak irailaren 9 eta 10erako Pirinioetara irteera bat antolatatu du. Igoko diren mendiak, Cabalirros (2.334 m.) eta Soum des Salettes (2.976 m.) izango dira. Autobusa Goro-sabelgo geltokitik aterako da larunbatean, 06:00etan. Interesatuak 40 euro ordaindu beharko dituzte. Izen-ema-tea, elkarteak, Gudari 5 kalean, edo 943 65 27 89 telefono zenbakian egin daitezke.

**KIROLA ▶**
**Usabalen bazkide egiteko aukera**

Hil honetatik aurrera, Usabal kiroldegiko bazkide egin nahi duenak aurretik sarrera matrikula baten ordainketa egin beharko du. Bestalde, laister hasiko dira neguko ikastaro berriak.

**TELEFONOAK ▶**
**Larrialdiak. ((112)) Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Balarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Iruia.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroizko dispen.: 672637
- ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

**Garraioak.**

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**Besterik.**

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurraremendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

**KULTURA ▶**

# 750. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi irailean ere

Hainbat hilabetetan itxita egon ondoren, ostiral honetan inauguratuko dute ofizialki Leidor aretoa

**ESTI EZEIZA**

Ikasturte hasierarekin batera, ekitaldi josita dator hilabetea. Izan ere, Tolosaren 750. urteurrenaren ospakizuna dela eta, hainbat ekintza antolatuta dituzte. Bestalde, zenbait hilabetetan itxita egon ondoren, Leidor aretoak berriro irekiko dituzte. Inaugurazio ofiziala aste honetan egingo delarik. Hona hemen hilabete honetan izango diren kultur jarduerak, banan-banan zehaztuta:

**ZINE-KLUBA**

'**Setiembre**'. 21:30etik aurrera Leidor zineman ikusgai izango da Radu Mihailenau zuzendaria-riaren filma.

'**Kutsidazu bidea, Ixabel**'. *Kutsidazu bidea, Ixabel* film berria izango da ikusgai hil honen azken egunean, 30ean, zine festaren baitan.

**ERAKUSKETAK**

**Aranburu Jauregia.** Hilaren 13tik aroaren 11ra arte ikusgai izango da *Espertentziak* erakusketa: XX. Mendeko memoriaren berreskuratzeko proiektua.

**Kontsumorako erakusketa.** Hilaren 18tik 24ra ikusgai izango da, Eusko Jaurlaritzako Kontsumo zuzendaritzak antolatutako Kontsumorako erakusketa, Kultur Etxean.

**MUSIKA**

**Coti eta Bide Ertzean.** Zezen-Plazan joko dute hilaren 9an, gaueko hamarretan.

**AOI-TORI japoniar abesbatza, Hodeiertz eta EHUKO abesbatza.** San Frantzisko elizan abestuko dute hilaren 10ean, 19:30ean.

**Kepa Junkera.** Kontzertua es-

kainiko du hilaren 15ean, 22:30ean, Leidor aretoan.

**Berri Txarrak.** Trianguloan joko dute hilaren 15ean, 23:30ean.

**Manantial Folk.** La Jara Elkartek antolatuta, Lopez Mendizabal plazan joko dute hilaren 15ean, 20:00etan.

**Oskorri eta Kukubilbo.** 17:00etatik aurrera izango dira irailaren 16an, Leidor aretoan.

**Tolosa 750. urteurrenaren Kontzertu berezia.** Tolosako Orfeo-oiak eta Ainhoa Arteta sopranoak hartuko dute parte himnoaren estreinaldian. Hau, Euskal Herria plazan izango da, hilaren 16an, 22:30ean.

**KIROLA**

**Eskalada erakustaldia.** Alpino Uzturrek antolatuta, hilaren 16an egingo da.

**ANTZERKIA**

**ART Antzerki Estrenaldia.** Hilaren 29an, 22:30etik aurrera izango da Leidor Zinema aretoan.

**HITZALDIAK**

**Historiari buruzko hitzaldiak.** Tolosa 750. urteurrena Fundazioak antolatuta, hilaren 11tik 15era bitartean gauzatuko dira, 20:00etatik aurrera, Kultur Etxean.

**Kultur Etxean.** Hilaren 25etik 29ra, hainbat hitzaldi izango dira, Yoga elkarteak antolatuta.

**BESTERIK**

**Leidor aretoaren inaugurazioa.** Ostiral honetan, hilak 8, egingo da Leidorren inaugurazio ofiziala. Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin emango zaioa irekiera, 20:00etatik aurrera.

**Urtemuga.** Tolosa 750. Urteurrenaren ospakizuna egingo



Hiri izen du Kepa Junkeraren disko berriak. HITZA



Euskal Herriko III. Graffiti lehiaketako aurkezpeneko irudiak. N. LATABURU

da hilaren 13an, Triangulo plazan.

**Tedeum.** Santa Maria Parrokian entzungai, hilaren 13an, 20:00etan.

**'Espertentziak'.** Soinu eta irudi gau-ikuskitzuna izango da Triangulo plazan, hilaren 13an.

**Haurrentzako ekintzak.** Tribial erraldoia, globo aerostatikoa eta Tolosako begiratokien ibil-bidea izango dira besteak beste. Hilaren 13an, Euskal Herria plazan, Trianguloan eta Tolosako begiratokian izango dira.

Honez gain, Zumardi Txikian, su artifizialak izango dira, 21:30ean.

**'Espertentziak'.** XX. Mendeko memoriaren berreskuratzeko

proiektua. Gipuzkoako Artxi-boan burutuko da ekitaldia, iluntzeko zortzietan, hilaren 13an.

**Protokolozko eta akademiko ekintza.** Leidor aretoan egingo da hilaren 13an, 19:00etatik aurrera.

**Euskal Herriko Graffiti Lehiaketaren finala.** Frontoi alboko horman egingo da, hilaren 16an.

**Erraldoien bilkura.** Herrian zehar ibilbiko dira kalejiran, hilaren 16an.

**Su artifizialak.** Zumardi Txikian izango dira, hilaren 16an, 21:30etik aurrera.

**Kale animazioa.** Txarangak ibiliko dira kaleetan zehar, hau ere, hilaren 16an.

**iragarki laburrak ▶**
**LANA**

**Langilea.** Frutategi baterako neska behar da. Telefonoa: 943 11 70 45.

**Etxeko lanak.** Altzon pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko. 08:30etik 13:30era. 669 21 33 37.

**Zerbitzaria.** Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. 677 32 99 34.

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. 635 74 52 91.

**SALGAI**

**Furgoneta.** Furgoneta salgai. California 2,5 TDI. Extrak. 50.000 km. 2003koa. Telefono zenbakia: 685 75 17.

**Txakurkumeak.** Setter ingeles (leveling) arrazakoak. Ehiza txakur onen kumeak. Deitu 647 144 070 edo 678 066 396 zenbakietara.

**Argazki kamara.** Nikon D50, 18-55 eta 55-200 objektiboak 1GBeko txartela eta poltxa. 10 hilabetekoa. Egoera onean. Telefonoa: 600 026 085.

VILLABONA ▶ MENDIA

# Gavarnie eta Ordesa ingurura antolatu du irteera Aizkardik

Hilaren 23an eta 24an izango da Pirinioetara egiten duten ohiko ibilaldia



Errolan Bretxatik igaroz Pic de Taillon mendira igotzeko aukera izango dute mendizaleek. HITZA



Cotatuero bailarako ikuspegi ez gozatzeko aukera izango dute irteeran parte hartzen dutenek. HITZA

## ERREDAKZIOA

Pirinioetara urtero antolatzen duen irteera hilaren 23an eta 24an egingo du Villabonako Aizkardi Mendi Elkarteak. Lehenengo egunean Gavarnietik abiatuko dira izen bereko zirkura iristeko. Berau igaro ondoren, bide aldapatsu batetik Sarradets aterpera (2.587 metro) iritsiko dira. Nahi duenak Pic du Taillon (3.144 metro) mendia igo ahaliko du, Errolan Bretxatik igaroz, aterpera leku berdinetik jaitsiz.

Bigarren egunean, hilaren 24an, aterpean gosalduta ondoren, Errolan pasabidera joango dira. Casco de Marbore (3.009 metro) gainera igotzeko aukera izango dute Casteret-eko Haitzulo Izoztura (2.600 metro) jaitsi aurretik. Hortik Millares-eko lautadara (2.410 metro) joko dute eta Loreen Bidetik Ordesako bailarara jaitsiko dira. Ordesako bailarako eta Cotatuero zirkuko paisaiak ikusteko aukera izango dute mendizaleek. Ibilaldia Ordesako aparkalekuan amaituko dute, Carriata zirkutik jaitsiz.

Irteeran parte hartzeko 649 717 182 zenbakira deitu behar dute interesatuek, hilaren 14a arte, 19:00etatik 22:00etara edo Aizkardiren egoitzara azaldu ostegunetan 21:00etatik 22:00etara. 55 euro ordaindu beharko dute FEDME txartela ez dutenek eta bost euro gutxiago txartelaren jabeek. 21 urte azpikoe %20ko beherapena izango dute. Prezioakbi daia eta aterpea egunerdikoa ostatuan barneratzen ditu. Irteera hilaren 23ko 06:00etan egingo dute kiroldegia ondotik. Aizkardikoek parte-hartzaileei federatuta egoteko gomendioa egiten diete.

## ANOETA ▶

### Dantza eta pilota eskoletan izena emateko aukera

Anoetako Udala Dantza eta Pilota eskoletako matrikularioa egiteko aukera dago udaletxean, bihurtik hilaren 13ra bitarte, 09:00etatik 13:00etara. Dantzan hiru urtetik aurrerako haurrek eman dezakete izena eta pilotan zazpi urtetik aurrerakoek. Dantzan, txikien taldekoek (ordu bat) 45 euro ordaindu beharko dute eta handien taldekoek (1,5 ordu) 65 euro. Pilotakoek 45 euro (ordu bat) edo 80 euro (2 ordu) ordaindu behar dute. Bestalde, liburategiak ohiko ordutegia berreskuratu du, 17:30etik 19:30era. Internet erabili nahi dutenek 16:00etatik 19:30era dute aukera. KZGunea ere martxan jarriko dute ohiko ordutegian: 11:00etatik 13:00etara, astearte, asteazken eta ostegunetan.

## ANOETA ▶

### AHTren aurkako ekimenei buruzko bilera, gaur

Anoetako gizarte eragileek, urte hasieran hasitako AHTren aurkako ekimenei jarraitzea eman asmoz, orain AHTk Isasti mendian eragingo lukeen zabortegia salatu nahi dute. «Salatu bakarrik ez, baita inguruko bizilagunak informatu ere, hau Udalaren lana baldin bada ere», diote bidalitako oharrean. Isastiko ekimenak antolatzeko bilerara deitu dituzte herritar guztiak, gaur, 19:00etan, udaletxean.

## VILLABONA-ZIZURKIL ▶

### Jesusen Bihotzan bihar hasiko dute ikasturtea

Jesusen Bihotza Ikastolak jakinarazi duenez, 2006-2007 ikasturtea bihar hasiko dute: Haur Hezkuntzakoek 09:30ean (goizez bakarrik); Lehen Hezkuntzakoek 09:00etan (goizez bakarrik) eta DBHkoek 10:00etan aurkezpen saioa izango dute.

Zizurkilgo

Plaza Etxeberri jatetxean  
kamareroak behar ditugu  
lanaldi osorako

616 647 869

**Izarti**  
txokolategia

Sortalde, 1 • ANOETA  
Tel.: 943 65 19 93

**hitza**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN praktikak egin nahi?

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioan lizentziaturiko Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleei zuzendua

**Urritik abendura aritzeko lanaldi erdiz**  
Kredituak baliozkotuko dira

Curriculum-a bidali helbide hauetara, irailaren 13a baino lehen:  
Araba etorbidea, 5. atzea • 20400 TOLOSA  
tolosaldean@tolosaldekohitza.info

LARRAUL ▶ HEZKUNTZA

# Begirale ikastaroa eskainiko du Hezkidek

Titulua lortzeko aukera izango da, 100 edota 200 ordutan



Inoiz prestakuntza jasoko zuten Atsedena taldeko begiraleek. HITZA

## NEREA URBIZU

Hezkide eskolak ireki berri du antolatutako begirale ikastaroen matrikulazioa, beraz, bertan izena eman ahal dute dagoeneko interesatuek. Urrian hasi eta maiatzaren bukatuko den 200 orduko ikastaroa izango da alde batetik, larunbatetan Larraulen eskainiko dena. Begirale formazioa eta titulua lortzeko eskaintzen duten beste aukera, bi moduluetan banatzen den begirale ikastaroa da, eta 2. modulua urritik urtarrilera izango da. Lehenengoa egin dutenek soilik egin ahal dute hau.

Haur eta gazteen aisialdirako begirale izateko 2. moduluan landuko dituzten edukiak ondorengoak izango dira: ai-

sialdiaren psikologia, eta esku-hartzea eta heziketa jarduera aisialdian. Gai teknikoak, berriz, ingurugiroaren pedagogia eta ingurugiro heziketa, jolasak, adierazpena, lehen sorospenen oinarriko ezagutzak izango dira besteak beste.

Urriaren 7an hasiko da, eta ia astebururo izango da, urtarrilaren 13ra arte. Bukatu ostean, lan teoriko bat eta 120 orduko praktikak egin beharko dituzte parte hartzaileek.

## Ikastaro trinkoa

Haur eta gazteen aisialdirako begiralea izateko ikastaro trinkoa egin nahi izanez gero hauek dira baldintzak eta edukiak: aisialdiaren soziologia, aisialdiaren pedagogia, psiko-

## DATU BATZUK ▶

Begirale izateko bi ikastarok dituzten ezaugarriak ondorengoak dira:

**Matrikulazio epea.** Hilaren 29ra arte.

**Lekua.** Eskolak Larraulen duen baserrian.

**Ordutegia.** Larunbatetan, 09:45etik, igandeko 13:30a arte.

**Lehenengo asteburua.** Urriaren 7an eta 8an.

**Iraupena.** 2. modulua 100 ordu, eta ikastaro trinkoa 200.

**Prezioa.** Matrikularen prezioak mantenua eta ostatua eguneko autobusaz gain, irteera barne hartzen ditu.

**Informazio gehiago.** 943 31 14 74 telefono zenbakian, edo [www.hezkide.org](http://www.hezkide.org) helbidean.

logia, eta esku-hartzea eta heziketa jarduera aisialdian. Ikastaroa egin ahal izateko 18 urte izan behar dira gutxienez, edo ikastaroan zehar betetzea. Dena dela, aisialdiko talde edo antzeko erakunde baten partaide direnek lehenetsuna izango dute. 200 orduko ikastaroa amaitu ondoren, lan teoriko bat eta 120 orduko praktikak egin beharko dira. Urriaren 7an hasi eta ia astebururo izango dira eskolak maiatzaren 12ra arte.

## Titulu ofiziala

Ikastaroa amaitu ostean eta bertan eskatutako baldintza guztiak bete ondoren, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Haur eta Gazteen Aisialdiko Begirale Titulua eskainiko du.

AMEZKETA ▶ PILOTA

# Finalaren atarian da Joxean Tolosa Txapelketa

Asteburu honetan jokatu dituzte finalerdiak; nagusien mailan, Bengoetxea gailendu da



Saez eta Jauregi gazteak txapelketako kanporaketa batean. I. GARCIA

## N. URBIZU

Joxean Tolosa eskuz banako Pilota Txapelketa amaiera ari da iristen, iragan igandean jokatu baitzituzten Amezketa pilotalekuan finalerdiak.

Kadeteetan, Madariaga eta Galarza aritu ziren, eta Madariaga gailendu zen. 18 eta 6koa izan zen emaitza. Irurtzungo pilotaria irabazten hasi zen, 4-2koa eginez, «baina gero Madariagak dena ondo egin zuen; terreno guztietan puskatu zuen», antolatzaileran esanetan. Gazteetan, kadeteen mailako pilotari irabazlearen eskolako Otxandorenak irabazi zuen partida, emaitza ere berdina lortuz. «Zaramaga eskolako Albaradori ez zion aukerarik eman ezer egiteko». Azkenik, nagusien artekoa jokatu zuten Bengoetxeak eta Irurretak, 18-15eko emaitza eginez. Partida «benetan ederra izan zen; hasieratik aurretik joan zen Ben-

goetxea garailea, baina Irurere ere aurretik izan zen, partida bizia eginez». Azken tantotara arte emozioa nagusitu zen, izan ere, hamabosna ere egon ziren, eta azkenik Bengoetxea eibartarrak «zeukan guztia eman behar izan zuen finalerako txartela lortzeko», adituek esan zutenaren arabera.

Beraz, Txarutako bi pilotari izango dira, bi maila ezberdinetan. Nafarrek, berriz, maila ona erakutsi dute, beste behin, eta Bengoetxea eibartarra nagusien mailan izango da.

## Final handia jokatzeaz

Finala jokatzeakoak izango dira laister, baina azken partida horien berri aste honetan bertan emango dute antolatzailerak. Hori bai, argi dago, pilotari onak ikusi ahal izango direla Amezketa frontoan, profesionalak eginiko bidea egiten hasiak baitira.

hitza

Harpidedunen txokoa



Hitzako 3 harpidedun tolosaren 750. Urteurrenaren ospakizunen baitan burutuko den **kontzerturako bina sarrerekin saritu nahi ditugu:**

**Coti eta Bide Ertzean**

**Irailak 9, Larunbata • 22:00etan • Tolosako zezen plazan**



Deitu zozketan parte hartzeko 943 65 56 95 telefono zenbakira eta emaiguzu zure harpidedun kodea.

## PATXI ZEBERIO ▶ ERREMONTISTA



MADDI SOROA

## «Askokostatako txapela izan da, lan handia egin dut urte osoan»

Binakako Txapelketako garaipenak izan arren, Buruz Burukoa lortu nahi zuen Zeberio palmaresa osatzeko; azkenean lortu du ametsa betetzea

## MADDI SOROA

Hamabi urte dira Patxi Zeberio elduaindarra erremontean hasi zela. Egun, bera da herriko erremontista bakarra. Bakarria eta Buruz Buruko txapeldun, gainera.

### Hasteko, zorionak. Zer sentitzen du txapeldunak?

Poz handia sentitzen da. Askokostatako txapela izan da, oso gogorra izan baita finalera iristea, eskaileran aurrera egitea ez da lan erraza izan. Lan handia egin dut urtean zehar eta satisfazioa ematen du azken

emaitza ikusteak. Gainera, Binakako Txapelketako garaipenak banituen baina palmaresa osatzeko Buruz Buruko txapela behar nuen.

### Hamaika urteren ondoren, Koketo Ezkurrarik gabeko finala.

Pena izan da txapelketarentzat, pilotari handia baita eta jendek faltan bota du. Nik laguna dut eta niri ere pena eman zidan min hartu zuenean.

### Partida irekia zela zioen jendeak. Nola ikusten zenuen zuk?

Askok ni nintzela faborito zio-

ten, baina nik banekien lan handia egin beharko nuela. Urrutia indartsu ibili da aurten eta sake gaiztoa du.

### Ordubete eta hogei eta hamabitu minutuko iraupena partidak.

Oso partido gogorra izan zen. Kuadro asko dira defenditu beharrekoak eta korri asko egin behar izan nuen. Dezente sufritu nuen.

### Sakea izan omen zen partidaren gakoa.

Bai. Urrutiak oso sake gaiztoa du, hori da, gainera, bere punturik fuertea, min handia

egiten baitu sakearekin. Nire sakea ez da hain fuertea, baina sakatzuz gero tantoa gidatzeko aukera gehiago izaten duzu.

### 15 eta 10 galtzetik, 35 eta 31 irabaztera. Fisiko kontua?

Sei puntuko alde ere aterata zidan momentu batean eta hor larri ikusi nuen nire burua. Urrutia, ordea, nekatua zegoela ohartu nintzen eta buelta emateko gaitasuna izan nuen. Fisiko kontua ere izan zen, oso prestatua egoten naiz eta horrek asko lagundu ninduen.

### Zure biziko partidarik gogorrena baina gehien disfrutatatu

## TXAPELKETA

«Lan handia egin dut urtean zehar eta satisfazioa ematen du azken emaitza ikusteak»

## PARTIDA

«Oso partida gogorra izan zen. Kuadro asko dira defenditu beharrekoak eta dezente sufritu nuen»

## ESKERRAK

«Amarekin batera, jende asko izan dut alboan, Iñaki Gaztelu eta masajista, besteak beste»

### duzuna izan dela aipatu duzu.

Halaxe izan da bai, gogorra baina polita aldi berean.

### Kantxa ertzetik buruarekin jokatzeko esaten zizun botilereak.

Bai, Iñaki Gaztelu eta Koteto Ezkurra bera ere izan nituen eskaileretatik laguntzen. Askotan, oso zentratua zaude partidaren eta ez zara gauza askotaz ohartzen, baina asko lagundu ninduten. Buruarekin jokatzeko esanez, nire buruari txapelak ez zidala alde egingo agindu nion.

### Kantxa goikaldean, berriz, 'Patxi, aurten dek txapela' zioen kartelak.

Nire ilobek eginiako kartela zen. Nire etxean egin omen zuten ezkutuan, ni konturatu gabe. Frontoian ikusi nuenean sekulako sorpresa hartu nuen.

### Amari eskaini zenion txapela. A zer oparia!

Beste lau seniderek batera, gazte-gaztetatik amak aurrera aterata gintuen berak bakarrik eta hori eskertzeko modu ezin-hobea dela uste dut. Urte osoan nire alboan egon direnei eskerrak eman nahi dizkiet, amarekin batera, beste jende asko dago, Iñaki Gaztelu botileroa eta masajista, besteak beste.

## iragarki laburrak ▶



Alkiza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra salgai. Bista oso onak.

Amezketak, Belauntza, Gabiria, Hernialde, Ibarra eta Villabona-Zizurkilen hainbat etxe familiar eta adosatutak eraikitzeke partzela.

**Ikaztegieta.** Eraikuntza nahiko berriko 170m2ko duplexa.

**Leaburu bidean.** 600m2ko pabiloia alokairuan, bi solairuetan banatua, 2.500m2ko zelaiarekin.

**Legorreta.** Trastelekua salmentan.

Bizikleta edo motorrarentzat egokia.

**Tolosa.** Erdikaldean eraikuntza berriko etxebizitzak. 3 eta 4 logelekin, terrazak. Sukalde ekipatuak. Garajeekin.

**Tolosa.** Beotibar. 36m2. Altua. 150.000 euro.

**Tolosa.** San Esteban, 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.

Sartzeko moduan. 198.335 euro.

**Tolosa.** Berazubi. Berritzeko aukera anitzak. Igogailu proiektua onartua.

**Tolosa.** Siervas de Jesús. 3 logela, egongela, sukaldea eta bi bainugela.

**Tolosa.** Zumalakarregi. 2 etxebizitza. 92 eta 97 m2. 2 eta 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Oso

bista ederrak. Guztiz berritua Estreinatzeko.

**Tolosa.** La estrella. Oso egoera oneko etxebizitza. Igogailu eta garajearekin.

**Tolosa.** Araba Etorbidea. 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, 25 m2ko trastelekua eta garajea.

**Villabona.** Kale Berria. Eraikuntza berrian pisu altua. 100m2. Garaje itxiarekin.

## LEITZA ▶ INGURUMENA



Ostiralean Ariko zubi inguruan Erasotek zuen itxura. J. ASTIBIA

## Erasote errekan gasoil isuria izan da

Ostiral arratsaldean, Ariko zubi parean erreka inguruetan usaina ere nabaria zen

J. ASTIBIA

Erasote errekarra, herrialderako sarreratik hasita, gasoila isuri zuten iragan ostiralean. Ariko zubi inguruetatik gora aldera, ederki asko nabari zen, ur-azaleko irisazioengatik eta baita inguruan zegoen usainarengatik ere. Ostiral arratsaldean ohartarazi zuten HITZA horretaz; zehazki, ordea, ezin izan du jakin noiz hasi zen isurketa.

Bertara joan eta egiaztatu ahal izan zen, ur-azala, errekararen ur-geldietan, gasoilak eragin ohi duen ostilekaren kolorezko orbainez bete zegoela eta, esan bezala, usaina ere

halaxekoa zen. Hainbat lagun, errekan eragiten ari zen kutsaduraz kezkatuta, isuriaren jatorriaren bila zebiltzan.

Egunkari honek lekuan bertan egiaztatu ahal izan zuenez, errekan gora dagoen amuarrain haztegitik behera ageri ziren gasoilaren orbainak, justu, biztutan zeuden motorretako baten paretik hasita. Ordurako atek itxita zituenez haztegitak.

Oraingoz amuarrain hilik agertu ez bada ere, uztailean, hilaren 17an, Ingurumen Sailetik HITZARI adierazi ziotenez, ehundaka agertu ziren inguru berean, ustez «hildako amuarrainak ihes eginda».

## LEITZA ▶ KULTURA

## Asketa Txiki abesbatza Xabierren izan da

Frantziskoren omenezko ospakizunetan, Umeen Egunean kontzertua eskaini du

ERREDAKZIOA

Xabierko Frantziskoren omenez, bertako gazteluan urtean zehar egiten ari diren ospakizunetan baita, Umeen Eguna egin zuten igande honetan, eta hantxe izandu da Leitzako Asketa Txiki abesbatza, kontzertua eskaintzen.

2.500 ume inguru bildu ziren Xabierko gaztelu atarian, eurentzat prestatutako ikuskitan parte hartzera: gazte-

luaren ikustaldiak, magia eta umorezko saioak, pintura eta makilaje tailerrak... Horieta denetan jarduteko aukera izan zuten Leitzaldetik joandako Asketa Txiki abesbatzako kantari gaztetxoek, baina beraiek ere lan pixka bat egin behar izan zuten, goizez eta arratsaldez ere, bi emanaldi eskaini baitzituzten, bertaratu gozamenerako.

Oporraldiko azken asteburua ederki igaro zuten.

## LEITZA ▶ KIROLAK

# Finalerdietan ariko diren aurreneko pilotariak, erabakita

Asteburuan jokatu dituzte Leitzako II. Pilota Txapelketako lehendabiziko kanporaketak; heldu denean, gainerakoak



Mikel Iriartek (ezkerrekoa) ez du parte hartzen aurtan. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Leitzako II. Pilota Txapelketan, finalerdietan jokatuko duten bikoteen erdiak jakinak dira dagoeneko. Igaro berri den asteburuan honetan jokatu dituzte aurreneko kanporaketak eta sei mailetatik bina bikote, hurrengo fase horretan elkarren aurka ariko direnak gainera, sailkatuta daude. 112 parte-hartzailetatik, bigarren erdiak hurrengo aste bukaeran beste hainbeste eginen du.

Ostiralean ekin zion aurtan bigarren aldiz egiten ari diren Leitzako Pilota Txapelketak bere ibilbideari: hiru maila helduenetako partidak jokatu zituzten, bakoitzetik bana, eta 22ra; igandean, beste hainbeste. Eta larunbatean, berriz, gazteen txanda izan zen. Honetan, 18 tantora jokatu, eta sei partida.

Horrela, ostiraleko saioan, seniorretan, jaialdiko hirugarren eta azken partida izan zenean, Aurrera pilota eskolako ordezkari modura aritu zen Mikel Olazabal aresoarra eta finalerdietarako txartela eskuratu zuten, atzeko koadroetan Mitxelena lagun zuela. 22 eta 14 irabazi zieten partida, Aurteneke eta Bengoetxeari. Maila honetan Urrutia-Iza sailkatu ziren beste partidatan.

Antolatzaile den eskola ho-

rretakoak aritu ziren igandean ere, baina kadeteetan eta jubenetan. Hala, hurrenez hurren, Haritz Sagastibelza leitzarrak, Perosanz atzelariarekin batera 22 eta 14 irabazi zuten, Arrese-Berjeraren aurkakoa, aurrera jarraitzeko eskubidea irabaziz. Epelde-Lana sailkatu ziren bestean; ez zuen zorte bera izan Zuhaitz Belokik jubenetako pilotari leitzarrak: Jauregi aurreko zuela, 22 eta 19 galdu baitzuten Azpiri eta Ibarraren aurkako lehia. Edozein moduz, antolatzaileek TOLASALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI adierazi diotenez, «aurreneko jardunaldi hauetan nabarmentzekoa eta partida dotorea oso», horixe izan zen, igandekoak orohar ikusgarriak izan omen zirelarik. Jubenetan aurrera jarraitzeko bidean den beste bikotea Iturrioz-Larrinaga da.

Gazteenek larunbat eguerdiarte izan zuten berentzat. Sei partiduetatik lautan, bertakoek parte hartu zuten eta gaztetxoek, benjaminetakoek, 9-10 urteko mutikoek lortu zuten final-erdietarako pasea: Asier Gil leitzarrak, Espinal atzean zuela, 18 eta 10 irabazi zuten, Fernandez-Fernandez bikoaren aurkakoa; Mikel Sagastibelza Egueseak, berriz, Altona atzelariarekin batera, 18 eta 4 irabazi zieten, Noble-Mixelena bikoari.

### LEITZAKO PILOTA TXAPELKETA ▶

## EMAITZAK

**Seniorrak. Olazabal-** Mixelena 22/Aurteneke-Bengoetxea 14; Urrutia-Iza 22/Renobales-Huarte 16.

**Jubenilak.** Iturrioz-Larrinaga 22/Abotegi-Legarreta 12; Apiri-Ibarra 22/Jauregi-Beloki 19.

**Kadeteak.** Epelde-Lana 22/Iraola-Madariaga 21; **Sagastibelza**-Perosanz 22/Arrese-Bejera 14.

**Infantilak.** Arrieta-Arritxabaleta 18/Juanena-Beraza 02; Iraola-Gallurralde 18/Legorburu-Aizpuru 13.

**Alebinak.** Untxalo-Bernabe 18/Olano-Garaio 10; Agirre-Mendinueta 18/Jaunarena-Cristihan 11.

**Benjaminak.** Gil-Espinal 18/Fernandez-Fernandez 10; **Sagastibelza E.** Altona 18/Noble-Mixelena 04.

Alebinetan ez zuten halako zortetik izan Aurrerako bi ordezkariak eta kanporatuta suertatu ziren: Anartz Olano aresoarrak, Garaio atzean zuela, 10 eta 18 galdu zuten, Untxalo-Bernaberen aurka; Xabier Jaunarena leitzarrak eta Cristihanek, berriz, 11 eta 18, Agirre eta Mendinuetaekin. Infantiletan ez zuen bertako inork parte hartu; Arrieta-Arritxabaleta eta Iraola-Gallurraldek jarraituko dute.

Beraz, kanporaketen erdiak jokatu daude jada; eta heldu den asteburuan jokatu dituzte gelditzen direnak.

### Hasiera ona

Antolatzaileak «gustura» gelditu dira aurreneko partida hauetan, bai pilota-jokoarengatik, eta baita ikusleek emandako erantzunarekin ere. «Hasiera ona eman diogu; jende asko etorri da frontonera, ostiralean eta igandean oso giro pilotazalea somatu zen; larunbatean tikiak jokatzen zuten, batez ere guraso eta familia giroa nabari zen», azaldu dute.



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Anoeta.** 19:00etan, udaletxean, Isastiko ekimena antolatzeko bilera, herritar guztiei zuzenduta. AHT-k Isasti mendian eragingo lituzkeen ondorioak aztertuko dituzte.  
**Tolosa.** Udaberri dantza taldean izena eman dutenen zerrendak ikusgai daude Igarondo igeilekuaren ondoko lokalean.  
**Tolosa.** Alpino Uzturre mendi elkarteak irteera antolatuta du Pirineotara, hil honen 9an eta 10ean. Izen-ematea Gudari kaleko 5. zenbakian edo 943 65 27 89 telefono zenbakian. Prezioa: 40 euro.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.  
**Tolosa.** Ollarrea, J. Martin Jose  
 Iraola, 10. 943 67 24 38.

**IRRATIA**

**Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoeta Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.  
 21:00-22:00. *Zaharrak berri*.  
 22:00-23:00. *Street*  
 ▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Uda osteko lehenak iritsi dira!

**HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶** Heldu dira lehen argazkiak HITZA Argazki Lehiaketara. Anima zaitetz eta bidal ezazu zurea. Zain dituzu sari interesgarriak



**ALGHERO ▶**


**Maitane Urbizu (Lekunberri).**

Lekunberriko Maitane Urbizuk Italiako Sardinia irla bisitatu du bere opor egunetan. Honako argazkia bidali digu HITZaren lehiaketara. «Irudian Sardinia Alghero herriko hondartza ikus daiteke», azaldu du.

**BOLOGNIAKO HONDARTZA ▶**

**Ilyua Urrutia (Villabona).**

Ilyua Urrutia billabonatarra Andaluzia aldera (Espainia) joan da uda honetan. Bere oporraldiari buruz hau azaldu digu: «Hemenxe bidaltzen dizuet Andaluziako lurretan ateratako argazki bat, Bologniako hondartzan. Arratsalde zoragarria pasatzeko aukera eskaintzen du lekutxo honek, merezi du bertaratzea. Bueno eta neguak ez gaitzala jan, eguzkia beti barnean!».



**AGURRAK ▶**



**ZORIONAK!**

Atzo Aitonaren urtebetetze eguna, gaur lkerrena eta datorren astelehenean Unaiena.

Ondo pasa eta muku handi bana etxekoan partetik!

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZaren egoitza TOLOSAN  
Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza LEITZAN  
Udaletxeko bulegoa

**hitza** agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...